



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urtarrilaren 15a

4. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A :

#### Galderak:

- 11-23/PES-00121. Galdera, mendekotasunaren balorazioak izapidetzeko denborari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-23/PES-00122. Galdera, Aiegiko “La Hoya de Lucea” tiro-eremuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-23/PES-00123. Galdera, Artetako iturburuan (Ollaran) basurde batek egindako erasoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-23/PES-00124. Galdera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aparteko kenkariak pentsiodunengan duen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-23/PES-00125. Galdera, Gizarte Zerbitzuetako Dualia itzulpen-zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-23/PES-00126. Galdera, “Trantsizio garaiko eskuin muturreko terrorismoa Nafarroan” izeneko txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-23/PES-00127. Galdera, Kasedako Udalak eraiki duen legez kanpoko artegari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-23/PES-00128. Galdera, Nafarroako autobideko erabiltzaileei egun bereko joan-etorriko bidaietan egindako deskontuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-23/PES-00129. Galdera, Hondakinen Funtserako bildutako zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-23/PES-00130. Galdera, toki-entitateek Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoarekin dauzkaten zorrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-23/PES-00131. Galdera, Oinarritzko Osasun Laguntzak zahar-etxeei erizaintzako zerbitzua emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-23/PES-00132. Galdera, Parlamentuaren atarian irailaren 27an egin zen elkarretaratze isilean Foruzaingoaren Esku-hartzeko Unitate Bereziak izandako jokabideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-23/PES-00133. Galdera, prestakuntza-praktiken edo praktika akademikoen kotizazioak duen inpaktuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

—11-23/PES-00134. Galdera, arnas birus sinzitalaren txertoa sei hilabete baino gutxiagokoei ez jartzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-23/PES-00121. Galdera, mendekotasunaren balorazioak izapidetzeko denborari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, mendekotasunaren balorazioak izapidetzeko denborari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00121). Hona Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

- Nafarroako Gobernuaren Gizarte Zerbitzuen Zorroak prestazio bermatu gisa jasotzen du mendekotasuna baloratzeko zerbitzua. Zerbitzu horren jarraipena egin ahal izateko, honako galdera hau egin nahi diogu Eskubide Sozialetako Departamentuari:

Zenbat denbora behar da gaur egun mendekotasun balorazioak egiteko, eskatzen direnetik ebazten diren arte?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Errealitate Sozialaren Behatokiaren webgunean hilero (hilaren azken egunean) argitaratzen dira mendekotasun egoeraren balorazioa egiteko epeak:

<https://www.observatoriorealidadsocial.es/eu/datos/valoraciones-de-dependencia-/ind-36/>

2023ko urriaren 31n, mendekotasun egoeraren balorazioa egiteko batez besteko denbora eskaera berrietarako (mendekotasun berriak) 3,68 hilabetekoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-23/PES-00122. Galdera, Aiegiko “La Hoya de Lucea” tiro-eremuari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Aiegiko “La Hoya de Lucea” tiro-eremuari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-23-PES-00122 galdera idatzia egin du, Aiegiko “La Hoya de Lucea” tiro zelaiari buruz. Hona Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

1.- 2022ko abuztuaren 27an plater tiroketako jarduera egin zela jakin baitugu –hain zuzen ere, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek iazko abuztuaren 31n egindako galderei esker–, departamentuak inolako ikuskapenik egin al zuen basozainen zerbitzuaren bidez jarduera horretan sortutako plater nahiz berun hondakinak desagerrarazi zirela egiaztatu ahal izateko? Departamentuak administrazio prozedurarik abiarazi al zuen, Aiegiko Udalak tiro eremuan baimenik gabe antolatutako jarduerak direla-eta?

Erantzuna:

a) Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko basozaintzari ez zaio eskatu Aiegiko tiro zelaietan inolako ikuskapenik egiteko 2022ko abuztuaren 27an izandako plater tiroketako jardueraren ondoren.

b) Ez da inolako zehapen prozedurarik hasi tiro zelaietan antolatutako jardueren harira, ez ingurumen araudiaren arabera, ez lurralde eta hirigintza antolamenduaren arabera.

Galdera:

2.- Ikusi da aurten ere tiro zelaietan berriro antolatu dela plater tiroketa; Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak badaki jarduera hori antolatu dela? Gaur egun, “La Hoya de Lucea”

tiro zelaietan erabiltzearen inguruan, zein da egoera juridikoa? Egin al du Aiegiko Udalak eskaerarik jarduera horretarako baimena lortzeko?

Erantzuna:

a) Departamentu honek ez du jakin Aiegin plater tiroketarik antolatu denik galdera idatzi hau jaso arte.

b) Gaur egun, honako hau da tiro zelaiaren egoera juridikoa:

– Bere garaian emandako ingurumen ukipenertarako baimena, Ingurumenaren Araubide Juridikoaren Atalak emandako txosten juridikoan zehaztutakoarekin bat.

– Ingurumen ukipenertarako baimena Ingurumen Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean egon zen araututa, eta lege hori gaur egun Ingurumenen eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legeak indargabetzen du.

– Ingurumenen eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legeak “Ingurumen ukipenen txostena” jasotzen du, baina, 2. eranskinaren arabera, ez da aplikagarria tiro zelaietan instalaziorako eta jarduerarako.

– Jarduerak, halaber, ez du beste ingurumen araudi baten edota lurralde eta hirigintza antolamenduko araudi baten arabera baimenik eskatzen.

c) Ez dago jasota Udalak inolako eskaerarik egin duenik jarduerarako baimen iraunkor bat eskuratzeko. Alabaina, horrelako baimen bat ezin daiteke exijitu aurreko puntuetan azaldutakoagatik.

Galdera:

3.- Plater tiroketako aurtengo jarduerak izan beharreko administrazio baimenak ez baldin badauzka, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ba al du neurririk hartzeko asmorik? Basozainen zerbitzuak ikuskapenik egiten al du aurten tiro eremuaren egoera zein den begiratzeko?

Erantzuna:

a) Kontuan hartuta aurreko puntuan adierazi dena, aipatutako jarduerarako ez da ingurumen baimenik behar, ezta lurralde antolamenduko baimenik ere. Hori horrela, ez da aurreikusten horren harira inolako adierazpenik egitea.

Nolanahi ere, Departamentu honek honako gogoeta hauek helaraziko dizkio Aiegiko Udalari:

Mota horretako instalazioen arazo nagusia da tiro zelaietan tiroketarako erabiltzen diren plateretako batzuek dituzten hidrokaburo aromatiko poliziklikoek (HAP) lurzorua kutsatzen dutela, eta erabilitako kartutxoaren perdigoietan dagoen berunak ere kutsadura eragiten duela (nolanahi ere, antimonioa eta arsenikoa ere egon daitezke nagusiki).

Antzeko jarduerak hartzen dituzten beste tiro zelai batzuetako lurzoruetan dauden kutsatzaileen inguruan ikerketak egin dira, eta kutsatzaile bien kasuan lurzorurako erreferentziazkoak diren mailaz gaindiko balioak ikusi dira. Halaber, deskontaminazio prozedurak garatu dira lurzoru horietan kutsatzaile biak desagerrarazteko.

Hori dela-eta, beharrezkotzat jotzen da bertako lurzorua kutsatzea prebenitzeko alde aurretiko neurriak hartzea, jardueraren ondorioz kutsatzaile horiek ager daitezela saihesteko. Hori horrela, tiroketarako plateren erabilera mugatu behar da beren osieran HAPak dituzten kasuan, honako muga hauek jarrita:

Bentzo(a)pireno  $\leq 1$  mg/kg

HAPak guztira  $\leq 10$  mg/kg

Plateren hondakinak lurzorutik aldizka garbitzea exijitu beharko litzateke are gehiago minimizatzeko erabiltzen diren plateretatik eratorritako kutsatzaile posibleen presentzia, eta platerak behar bezala kudeatu beharko lirateke hondakin ez-arriskutsuen zabortegetan, birziklatzerik ez badago.

Halaber, kartutxoaren erabilera mugatu beharko litzateke, eta perdigoietan berunik, arsenikorik eta antimoniorik ez dutenak soilik erabiltzea baimendu; izan ere, jotzen da material horiek direla ohiko perdigoietan nagusiki egoten direnak, eta lurzorurako kutsadura karga handia dutela.

Aurrez aipatutako betekizunei jarraikiz, sortutako hondakinak kudeatzeak ez du bestelako arazorik planteatzen baimendutako kudeatzaileen bitarteko bilketa sistemen bidez egiteko.

Antzeko tiro zelaietan egin diren beste azterketa batzuetan dagoen dokumentazioaren arabera, jarduera horietan sortutako hondakinen tipologia eta horietako bakoitzerako aurreikusitako kudeaketa, aurrez azaldukoarekin bat, honako hauek lirateke:

#### HONDAKINA ETA OSAGAIK/GOMENDATUTAKO KUDEAKETA

Kartutxoa

ZORROA: dentsitate handiko polietilenoa.

02 01 04

02 01 10

Zorroa, pistoia eta kulata berrerabiltzeko aukera..

Plastikoa eta metala birziklatzeko edukiontzibatean uztea.

KULATA eta PISTOIA: metalezko pieza, normalean letoizkoa;

TAKOA: Plastikoa, kartoia, kortxoa eta feltroa.

Platera

Buztina, igeltsua, petrolio brea, ikatz brea, pinu kolofonia naturala

02 01 99

Tiro eremuan aldizka jasotzea eta hondakin ez-arriskutsuen zabortegetira eramatea, birziklatzea posible ez bada.

Plateren eta kartutxoaren kartoizko kutxak Pape-ra/kartoia 15 01 01 Gaikako bilketaren bidez birziklatzea

Perdigoiak Altzairua/burdina 02 01 10 Aldizka jaso ahal direnak birziklatzea

Azkenik, beharrezkotzat jotzen da jarduera hasi eta bost urteko epean eremuaren lurzoruaren egoerari buruzko txostena aurkeztea, berorren adierazle den laginketa barne hartzen duena eta lurzoruaren honako parametro hauek aztertzen dituen, gutxienez ere: HAP (banakakoa eta guztizkoa), beruna, arsenikoa eta antimonioa.

Egoerari buruzko txostenaren irismena une horretan zehaztuko da lurzoru kutsatuen ardura duen ingurumen organoarekin batera.

b) Ez da aurreikusten Basozainen zerbitzuak ikuskapenik egitea aurten tiro eremuaren egoera zein den egiaztatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-23/PES-00123. Galdera, Artetako iturburuan (Ollaran) basurde batek egindako erasoari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Artetako iturburuan (Ollaran) basurde batek egindako erasoari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

#### Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria foru parlamentari jaunak 11-23/PES-0123 galdera egin du, turista/bisitari ugari dauden eremuetan gertatzen diren animalien (basurdeen) erasoari lotuta segurtasun neurririk edo protokolorik dagoen jakiteko, bai eta jakiteko ere ea pertsonen horren berri ematen zaien. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Eremu turistikoetan eta bisitari ugari dutenetan jarraitzen den protokoloa beste edozein larrialditarako ezarrita dagoen berbera da, eta ez dago Turismo Arlorako espezifikorik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:  
Rebeca Esnaola Bermejo

#### Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-23-PES-00123 galdera idatzia egin du, Artetako iturburuaren inguruan (Ollaran|Ollolabar) basurde batek egindako erasoari buruz. Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Lehenengoa. Zer neurri hartuko dira halako gertakariak ekiditeko?

Nafarroan basurdea ehiza espeziea da, eta hala jasota dago ehizaren esparruan indarrean dagoen araudian; beraz, ezarritako eremuetan ehizatu daiteke.

Nafarroan espezie horren ehiza aprobe-txamendua egiten da urtero Debekualdiei buruzko Foru Aginduan ezarritako modalitateetan, ehiza barrutietan eta gaitutako epealdietan. Hori horrela, Nafarroan basurdea ehizatu daiteke uxalditan abuztuaren 15etik otsailaren amaierara arte, eta zelatan egunero urte osoan zehar.

Horrez gain, kalteak eragin ditzaketen ehiza espezieen kontrol metodoak arautzen dituen Foru Aginduan oinarrituta, salbuespeneko baimenen bidez espezie hori ehizatzea baimentzen den eremuak eta aldiak zabaldu eta luzatu daitezke.

Laburbilduz, basurde populazioa kontrolatzeko aplikatu daitezkeen neurri guztiak ari dira aplikatzen.

Bigarrena. Halakorik edo antzekorik gertatu al da lehenago ala gertakari bakan bat izan da?

Atal honetan ez da jakin iraganean halakorik gertatu denik.

Hirugarrena. Inguru horretan eta turistak nahiz bisitariak ibiltzen diren beste batzuetan halako animaliak egon badaudenez, ba al dago segurtasun neurririk edo protokolorik eta informaziorik ematen al zaie turistei eta bisitariei? Halakorik baldin badago, adierazi zeintzuk diren.

Ehiza jarduera kudeatzeari dagokionez, araudiak ezartzen du ehiza larriko uxaldiak egiten direnean segurtasun arau jakin batzuk bete behar direla. Horien artean dago ehiza kolektiboko ekin-tza eginen den eremurako sarbideak seinalezta-tzea eta parte hartzaileek ikusgaitasun handiko jantziak eramatea.

Joan den sasotik, Nafarroako ehiza barrutiak antolatzekeo planetan apartatu bat sartu da ehiza jardueren eta barrutian egiten diren erabilera publiko esanguratsuenen arteko interakzioei buruz, halakorik egonez gero betiere. Behar izanez gero, neurriak eta mugaketak ezartzen dira eremu horietan erabilera biak bateragarri egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-23/PES-00124. Galdera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aparteko kenkariak pentsiodunengan duen eraginari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aparteko kenkariak pentsiodunengan duen eraginari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak

idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 3743 irteera zenbakiarekin erregistratu dena, 2023ko urriaren 9an (11-23/PES-124 galdera), pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aparteko kenkariak pentsiodunengan duen eraginari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

1. Zer eragin izan du kenkari horrek pentsiodunen kolektiboan?

Pentsiodunen kolektiboari eskusiboki aplikatzen ez zaion aparteko kenkaria denez, hau da, eros ahalmen txikiagoko errenten kolektibo osoari aplikatzekoa denez, ez dago irizpide horren araberako banakatutako daturik.

Hala ere, kenkari horrek izan duen eragin orokorra ematen da likidazio oinarriaren tartetan.

### APARTEKO KENKARIAREN ERAGINA LAN ETEKINETAN (PFEZaren TESTU BATEGINAREN hirurogeita hamaseigarren xedapen gehigarria)

	ERAGINA	
	Ukitutako aitortpenak guztira	Aurreko kuota diferentzian izandako balioa
Likidazio oinarria 6.000 eurotik beherakoa	0	-
Likidazio oinarria 6.000,01 eta 12.000 euro bitartekoa	438	141.964,82
Likidazio-oinarria 12.000,01 eta 18.000 euro bitartekoa	25.071	11.516.194,50
Likidazio oinarria 18.000,01 eta 24.000 euro bitartekoa	35.565	16.935.692,63
Likidazio oinarria 24.000,01 eta 30.000 euro bitartekoa	28.901	11.607.287,38
Likidazio-oinarria 30.000,01 eta 45.000 euro bitartekoa	37.768	16.799.569,02
Likidazio oinarria 45.000,01 eta 60.000 euro bitartekoa	11.643	1.991.809,05
<b>LIKIDAZIO OINARRIAREN TARTEAK</b>	<b>139.386</b>	<b>58.992.517,40</b>

Honako hauek hartu beharko dira kontuan:

★ Likidazio oinarria. (550. laukia) Aurrezkiaren likidazio oinarri orokorra eta likidazio oinarri berezia barne.

Baterako tributazioan familia unitateko kide guztien likidazio oinarri orokorren eta berezien batura jasotzen da.

★ Aurreko kuota diferentziala (578. laukia) Aurreko kuota diferentziala atxikipenak eta konturako bestelako ordainketak deskontatu aurreko azken kuota edo tributu zorra da.

1. Onuradun potentzialen artean, zenbatek ez zuten eskatu kenkaria?

Kenkaria ez da eskatu behar, automatikoki aplikatzen baita 2022ko ekitaldiko PFEZaren aitortpena egitean. Beraz, 2022ko PFEZaren aitortpena aurkeztu duten eta arauan exijitutako betekizunak betetzen dituzten guztiei aplikatu zaie.

2. Zer egin zuen Nafarroako Gobernuak kenkari horren berri emateko onuradun izan zitezkeen pertsonen kolektiboari?

Kasu hauetarako ohiko ekintzak egin ziren, honako hauek, zehazki:

- Foru legea 2022ko abenduaren 22ko 250. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

- Nafarroako Gobernuaren albisteen kanala, prentsa eta irratia:

- Akordioaren aurkezpena (-2022ko azaroa)
- Errentaren kanpainaren aurkezpena (2023ko martxoan)

- Kenkari horri buruzko informazioa Foru Ogasunaren webgunean eta bereziki Errentaren kanpaina dirauen bitartean webgunean dagoen apartatuko informaziorako eta zabalkunderako materialean.

- Zergadunek aparteko kenkari horren harira egindako askotariko kontsultetarako arreta, Errentako kanpainaren barruan zein kanpainatik kanpo (aurrez aurre, telefono bidez, idatziz edota Foru Ogasunaren webgunearen bidez); Zergadunari Laguntza eta Argibideak Emateko Zerbitzuko langileek eta Nafarroako Foru Ogasunaren PFEZaren Zerbitzukoek emandako arreta, hain zuzen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez



## 11-23/PES-00125. Galdera, Gizarte Zerbitzuetako Dualia itzulpen-zerbitzuari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gizarte Zerbitzuetako Dualia itzulpen-zerbitzuari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-23/PES-00125 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horren harira ematen duen informazioa:

- Gizarte zerbitzuetako Dualia itzulpen zerbitzua baliatzeari utzi zioten ekainean. Zergatik? Noiz eta nola berrezarriko da zerbitzua?

Dualia telefono bidezko itzulpen zerbitzuak ematen dituen sektoreko enpresetako bat da. Oinarrizko gizarte zerbitzuetan jarraitzen dute zerbitzu hori ekainaz geroztik erabiltzen, hori erabaki dutelako, eta sortzen dien kostua beren gain hartzen dute.

2023ko urtarrilean, Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartu zuen oinarrizko gizarte zerbitzuetan erabiltzen duten interpretazio zerbitzua; ordura arte, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak kudeatzen zuen Dualiarekin zuten zerbitzu kontratu baten bidez. Horrekin lotu nahi zen Migrazio Politiken Departamentuak zuen

kontratua amaitzean zerbitzua bat-batean ez etetea.

Aurrekoa gorabehera, eta aldi iragankor honen ostean, gogorarazi behar da oinarrizko gizarte zerbitzuak udal titulartasunekoak direla, eta autonomia propioa dutela beren zerbitzuak kudeatzeko, berorien kostuari gastu arrunt gisa aurre eginda, eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak gastuok finantzatzen ditu Oinarrizko gizarte zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa sistema arautzen dituen uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren bidez.

Hori horrela, kontuan hartuta interpretazio zerbitzuak erabiltzeko hautua eta berorrek sortzen duen gastua oinarrizko gizarte zerbitzuen titular diren toki erakundeek beren gain hartu behar dituztela, Oinarrizko Arretaren Koordinazio Batzordearen bidez eta mezu elektronikoak bidalita jakinarazi zen ezen, ekainaren 30etik aurrera toki erakundeak interpretazio zerbitzua erabiltzen jarraitzeko interesik izanez gero, berorrek bere gain hartu behar zuela, eta aukera zuela nola Dualia hala sektoreko beste enpresa bat kontratatzeko.

Hori horrela, toki erakunde bakoitzak erabaki du, bere eskumenen esparruan, telefono bidezko interpretazio zerbitzua erabiltzen jarraitu nahi duen ala ez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-23/PES-00126. Galdera, “Trantsizio garaiko eskuin muturreko terrorismoa Nafarroan” izeneko txostenari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Trantsizio garaiko eskuin muturreko terrorismoa Nafarroan” izeneko txostenari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte jaunak PES-126 galdera egin du, honako hau:

Jurramendiko 1976ko gertakariei buruz 2023ko urtarrilean agertu diren datuak ikusita – dokumentu ofizialetan oinarritzen dira –, departamentuak ba al du asmorik Trantsizio garaiko eskuin muturreko terrorismoa Nafarroan izeneko txostena aldatzeko?

Zuzenketatik zergatik desagertu da Martorell jaunak testuinguruan jartzeko paragrafo bat pres-tatu zuela Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak eskatuta?

Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak, gaur egungo Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarakoak, 2019ko hasieran “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostena agindu zion Madrilgo Carlos III Unibertsitateko “Bartolomé de las Casas” Giza Eskubideen Institutuari.

Ikerketa Nafarroako eskuin muturreko taldeen ekintza terroristen biktimen laguntzarekin egin da. Eta Ana Ollo kontseilariak aurkeztu zuen 2021eko

martxoan parlamentuan izandako agertraldian. Agerraldian adierazi zen txostenak ez zuela sako-na edota historikoa izan nahi, baina biktimei aho-tsa eman egin zien, ezagutzeko zer nolako zailtasunak izan zituzten legezko errekonozimendua eskuratzeko, batez ere Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiarekin (Espainiako Gobernuko Barne Ministerioa); izan ere, erakunde hori izan zen biktimen taldeari laguntza eta erreparazioa emateaz arduratzen zen administra-zio unitatea.

Agerraldi horretan, hain zuzen, kontseilariak adierazi zuen txostena Espainiako Gobernuko Barne Ministeriora bidaliko zutela, errekonozimendu hori ematea azter zedin; izan ere, organo administratibo horretan dago Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusia, pertsona horiei terrorismoaren biktimen estatusa aitortu behar dien unitatea, hain zuzen.

Txostenaren xedea, Nafarroako Gobernuak eskatu dituen beste askorena bezala, egia bilatzea zen, eta biktima jakin batzuen erreparazioa lortzera ere bai; kasu honetan, terrorismoaren biktimena, inoiz ez baitzaie errekonozimendurik eman eta gertatu zena jakin dadila baino ez baitute nahi.

Txostenaren harira, Alderdi Karlistako kide batzuek zenbait kexa adierazi zituzten talde terroristen zerrendan ez zirelako sartu alderdi horri lotutako erakunde batzuk. Departamentuak kexa horiek helarazi zizkien txostenean parte hartu zuten ikertzaileei, eta txostenaren azkeneko edukian aldaketak egin ziren. Ollo kontseilariak gertaera hori ere azaldu zuen Nafarroako Parla-mentuan, bai eta alderdi karlistari lotutako pertsonen taldeari ere, eta horien artean zegoen Martorell jauna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## 11-23/PES-00127. Galdera, Kasedako Udalak eraiki duen legez kanpoko artegiari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kasedako Udalak eraiki duen legez kanpoko artegiari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Kasedako Udalaren ez-betetze bati buruz (11-23/PEI-00127). Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

2023ko urriaren 10ean EH Bildu talde parlamentarioaren idazki bat jaso zen. Horren bidez, Departamentu honi eskatzen zaio galdera batzuk idatziz erantzun ditzala Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak hirigintzako legezketasuna berrezartzeko tramitatutako espedienteari buruz, Kasedako Udalak Kasedako El Panaz inguruko 9 industrialdeko 1. partzelan egikaritutako jarduketak direla-eta.

1. Kasedako Udalak bete al du Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiaren ekainaren 27ko 85E/2022 Ebazpenaren bidez emandako eraispen agindua?

Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak ez du jakin eraikitako nabea eraitsi denik. Partzelan egin zen azken ikuskapena 2023ko maiatzaren 28koa da, eta egiaztatu zen aipatutako eraikuntzak hor jarraitzen duela.

2. Kasedako Udalari beste hertsapen isunik jarri al zaio aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko agindua ez betetzeagatik? Hala baldin bada, zenbat eta zer zenbatekoak izan dira?

Orain arte, bi hertsapen isun jarri zaizkio, honako ebazpen hauen bitartez:

- Urtarrilaren 16ko 5E/2023 Ebazpena, Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez lehendabiziko hertsapen isuna –600 eurokoa– ezarri baitzaio Kasedako Udalari.

- Maiatzaren 30eko 101E/2023 Ebazpena, Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez bigarren hertsapen isuna –1.091 eurokoa– ezarri baitzaio Kasedako Udalari.

3. Kasedako Udalak legez kanpo eraikitako artegia eraisteko agindua aldiro urratu duela ikusita, departamentu eskudunak ba al du asmorik jarduketara subsidiariorik egiteko, Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren ekainaren 27ko 85E/2022 Ebazpenean ezarritakoa bete dadin?

2023ko uztailaren 5eko sarrera-erregistroarekin, Kasedako Udalak Departamentu honi eskatu zion hertsapen isun gehiagorik ez jartzeko. Horretarako, argudiatu zuen 2023ko ekainean Ondare Historikoaren Zerbitzuko Erregistro, Ondasun Higigarri eta Arkeologia Atalari eskatu ziola ukitutako partzelan esku hartze arkeologiko bat egiteko baimena, dagokion aztarnategi arkeologikoaren egungo egoera ezagutzeko eta lurpean gorde daitzeko balizko hondakinak zehazteko.

Gaur egun, Kasedako Udalak egindako eskaera ikusita, eta aztarnategiaren balizko zundaketa baten aurrean, hirigintzako legezketasuna berrezartzeko espediente eta, beraz, eraisteko agindua ere bai aldi baterako geldituta daude, Ondare Historikoaren Zerbitzuak eman dezakeen baimenaren zain, hala badagokio, baita planteatu den esku hartze arkeologikoaren emaitzaren zain ere.

Ondare Historikoaren Zerbitzuari telefonoz galdetu zaio Kasedako Udalak aurkeztutako baimen eskaeraren egoerari buruz, eta oraindik ebatzi gabe dagoela jakinarazi dute.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

## 11-23/PES-00128. Galdera, Nafarroako autobideko erabiltzaileei egun bereko joan-etorriko bidaietan egindako deskontuei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako autobideko erabiltzaileei egun bereko joan-etorriko bidaietan egindako deskontuei buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 3747 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2023ko urriaren 9an (11-23/PES-128 galdera), Nafarroako autobidean joana eta etorria egun berean egiten duten bidaiarientzako deskontuei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

1.- Gobernuak noiz arte finantzatu nahi du joan-etorria egunean bertan egiten duten AP-15eko erabiltzaileendako deskontuen kostua? 2023ko ekitaldian soilik ala hurrengo urteetan ere bai?

Nafarroako Gobernuak aipatutako deskontuak aplikatzeko epea luza dadila onesteko urriaren 18an hartutako erabakiak ezartzen du aplikatzeko epea 2019ko urtarrilaren 23an onetsitako aldi baterako deskontua amaitzen den unean bertan hasiko dela (Nafarroako Ogasun Publikoari buruz-

ko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 40. artikuluan zenbait urteko gastuen konpromisoak hartzeko ezarritako gehieneko epea). Halaber, honako hau aurreikusten du: Une horretan aplikatzeko epea luzatu ahal izanen da, eta horretarako Nafarroako Gobernuak berariazko baimena ematea behar izanen da.

2.- Deskontuak ordaintzeak zer kostu izanen du aurrekontu-ekitaldi honetan?

Kostu zehatza ezin da aurrez zehaztu; alabaina, 2023ko aurreko hilabeteetan aplikatutako deskontuen zenbatekoetan oinarrituta, 384.000,00 euroko kostua zenbatetsi da.

3.- Nola finantzatuko da kostu hori eta zer aurrekontu-aldaketa egitea aurreikusten du?

Aurrekontuen eta Ondarearen zuzendari nagusiaren urriaren 16ko 377E/2023 Ebazpenaren bidez baimena eman da kreditu gehikuntzaren bitartez aurrekontua aldatzeko, 2023. urteari dagokion gastua finantzatzeko.

4.- Deskontu horiek ordaintzeak zer kostu izanen luke aurrekontu-ekitaldi batean?

Neurri hori indarrean izan den urteetan aplikatutako deskontuei buruz dagoen informazioaren arabera, urteko 2.880.000 euroko gastua zenbatetsi da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

## 11-23/PES-00129. Galdera, Hondakinen Funtserako bildutako zenbatekoei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hondakinen Funtserako bildutako zenbatekoei buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-23/PES-00129 informazio eskaera egin du, Hondakinen Funtserako bildutako zenbatekoei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Galdera- Zenbat diru bildu da 2019tik 2022ra bitarteko urte bakoitzean hondakindegian ezabatzearen eta erraustzearen gaineko zergaren bidez Hondakinen Funtserako?

Urtea	€
2018	1.351.940,68
2019	4.944.777,71
2020	5.202.605,64
2021	5.202.605,64
2022	5.068.468,91

2. Galdera- Ba al dago entitate pribatu edo publikorik 2019tik 2022ra bitarte zorretan dagoena isurketa-zergaren likidazioak direla-eta? Zer erakunde eta zenbatekoa da zorra?

Zerga gaietan eskuduna den departamentuari dagokio hondakindegian ezabatzearen eta erraustzearen gaineko zerga kudeatzea, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean eta Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legean jasotakoarekin bat.

Departamentu horrek ez du jakin entitate pribatu edo publikorik dagoen 2019tik 2022ra bitarte zorretan dagoenik isurketa-zergaren likidazioak direla-eta.

3. Galdera- Hondakinen Funtsetik dirulaguntzetara bideratu beharreko zer zenbateko ez da gastatu? Hondakinen Funtseko fluxu bakoitzerako zer zenbateko dagokio 2019tik 2022ra bitarteko urte bakoitzari?

Jarraian jasotzen dira hondakinen fluxu bakoitzari dagozkion datuak 2019-2022 aldi horretarako.

	2019	2020	2021	2022	2023
<b>ETXEKO HONDAKINEN FLUXUA:</b>					
<b>Sartzeke dauden kredituak</b>	168.666,67	808.730,82	842.683,20	690.980,67	5.483.415,01
<b>Sartu diren kredituak</b>	-168.666,67	-777.237,83	-662.499,98	0,00	0,00
<b>Justifikatzeke dauden kredituak (epea zehazteke)</b>	0,00	0,00	0,00	0,00	5.472.965,54
<b>SALDOA</b>	<b>0,00</b>	<b>31.492,99</b>	<b>211.676,21</b>	<b>902.656,88</b>	<b>913.106,35</b>
<b>INDUSTRIAKO HONDAKINEN FLUXUA:</b>					
<b>Sartzeke dauden kredituak</b>	232.774,86	1.207.790,30	934.670,79	956.984,02	1.432.330,08
<b>Sartu diren kredituak</b>	-232.774,86				
<b>Justifikatzeke dauden kredituak (epea zehazteke)</b>					1.432.330,08
<b>SALDOA</b>	<b>0,00</b>	<b>1.207.790,30</b>	<b>2.142.461,09</b>	<b>3.099.445,11</b>	<b>3.099.445,11</b>
<b>EEH-EN ETA HMN-EN FLUXUA:</b>					
<b>Sartzeke dauden kredituak</b>	236.446,47	1.124.133,69	400.999,83	544.045,90	1.246.818,85
<b>Sartu diren kredituak</b>	-236.446,47				
<b>Justifikatzeke dauden kredituak (epea zehazteke)</b>					1.495.702,10
<b>SALDOA</b>	<b>0,00</b>	<b>1.124.133,69</b>	<b>1.525.133,53</b>	<b>2.069.179,43</b>	<b>1.820.296,18</b>

4. Galdera- Hondakinen Funtsak zer zenbateko dauka metatuta eta gastatu gabe guztira 2023ko ekainaren 30era bitarte?

Hondakinen Funtsa arautzen duen uztailaren 15eko 49/2020 Foru Dekretuaren arabera, Hondakinen Funtsa bereizita integratzen da ingurumen alorrean eskumenak dituen departamentuaren aurrekontuan, eta aurrekontu ekitaldi bakoitzean Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 42. artikulua-ren 3. apartatuan aipatutako baliabideetatik sortutako diru kopuruak edo bildutako diru kopuru errealek osatuko dute, honako aldi hauetakoez, hain zuzen ere:

a) Aurreko urteko lehenengo sei hilekoa.

b) a) apartatuan adierazitakoaren aurreko urtearen bigarren sei hilekoa.

Aurrekoarekin bat etorritik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren abenduaren 16ko 298E/2022 Foru Aginduaren bidez, 2023ko Hondakinen Funtsaren banaketa onetsi zen. Funtse hori 5.230.512 eurokoa da, zabortegian ezabatzearen eta hondakinen errausketaren gaineko zergatik eratorria, eta 62.579 euroko diru sarrerak ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hondakinen arloko arau-hausteak egiteagatik ezarritako isunen ondoriozkoak.

Zenbateko horiek honela banatu dira:

– 2.660.000 euro etxeko hondakinak biltzeko, garraiatzeko edo kudeatzeko eskumena duten eta kontzeptu horrengatik zergak ordaindu dituzten toki erakundeei dirulaguntzak emateko.

– 1.345.000 euro, enpresei dirulaguntzak emateko, 2023an edo 2024an industria hondakinak prebenitzeko, berrerabiltzeko prestatzeko eta birziklatzeko proiektuak egin ditzaten.

– 937.000 euro, enpresei, unibertsitatei eta tokiko erakundeei dirulaguntzak emateko, eraikuntza eta eraipen hondakinen birziklapen eta balorizazio sistemak optimizatzeke eta hobetzeko, eta 2023, 2024 eta/edo 2025ean zehar garatuko diren hondeatutako material naturalen balorazio materiala egiteko.

– 351.091 euro 2023an egiten diren jarduketa orokorretarako eta ingurumen larrialdiko jardueretarako.

Eta aurreko horrekin bat, dirulaguntzak emateko honako deialdi hauek egin dira:

– 2.360.000,00 euro: 238E/2023 Ebazpena, martxoaren 9koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, “2023ko Hondakinen Funtsa. Etxeko hondakinen urte anitzeko fluxua” izeneko dirulaguntzaren deialdia onesten duena.

– 1.400.000,00 euro: 1442E/2022 Ebazpena, abenduaren 29koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, “2023ko Hondakinen Funtsa.

Arriskutsuak ez diren bestelako hondakinen urte anitzeko fluxua” izeneko dirulaguntzaren deialdia onesten duena. DDBN identifikazioa: 668476.

– 310.000 euro: 408E/2023 Ebazpena, maiatzaren 8koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, “2023ko Hondakinen Funtseko urteko dirulaguntza Nafarroako Unibertsitateentzat. Eraikuntza eta eraisteetan sortutako hondakinen fluxua eta hondeatutako material naturalak” izeneko dirulaguntzaren deialdia onesten duena. DDBN identifikazioa: 693195.

– 500.000 euro: 245E/2022 Ebazpena, martxoaren 28koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, “Enpresa pribatuetan hondakinak MITERD funtsekin kudeatzeko dirulaguntza” izeneko dirulaguntzaren deialdia onesten duena. DDBN identifikazioa: 617692.

– 430.000 euro: 1438E/2022 Ebazpena, abenduaren 29koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, “2023ko Hondakinen Funtseko urteko dirulaguntza enpresentzat. Eraikuntza eta eraisteetan sortutako hondakinen fluxua eta hondeatutako material naturalak” izeneko dirulaguntzaren deialdia onesten duena. DDBN identifikazioa: 668461.

Hau da, 5.000.000 euro eman dira dirulaguntzetan.

2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen 52 artikuluari jarraikiz, honako hau gogorarazi behar da: Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako gastua, Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legeak sortutako Hondakinen Funtzari dagokiona, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzan ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikitzen joko da eta hurrengo aurrekontu-ekitaldietan txertatzen ahalko da.

Horrenbestez, gastatutako zenbatekoa azken batean diruz lagundu daitezkeen jarduketak exekutatzearan araberakoa da, hau da, diruz lagundu daitezkeen jarduerak berorien onuradunek gauzatzearan araberakoa.

Bestalde, dirulaguntza horien deialdien eragin-kortasuna desberdina da fluxu bakoitzaren kasuan (etxeak, industrialak EEHak eta HMNak). Alde batetik, etxe hondakinen fluxuan zeuden kredituen % 100 erabili da.

Hori horrela, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emandako urriaren 26ko 934E/2023 Ebazpen bidez onetsita geratzen da “2023ko Hondakinen Funtza. Etxeko hondakinen urte anitzeko fluxua” izeneko dirulaguntzaren deialdia, eta laguntza ematen zaie hamazortzi toki erakunderi, guztira 2.360.000,00 euro.

Alabaina, gauza bera ez da gertatzen hondakin industrialen, EEHen eta HMNen fluxuen kasuan; Industrialen Fluxuarekin, laguntza guztiak emateko eta ordaintzeko aukera mugatzen duen Europako minimis araudiaren mende daudelako, eta EEHen eta HMNen deialdietan ez da egon nahi izan den eskaera guztia, eta, beraz, esleitutako zenbatekoak ez dira gastatzen.

Azkenik, kontuan hartu behar da urte anitzeko dirulaguntzen funtzionamendua; izan ere, horiek gauzatzeko epea bi eta hiru urte artekoa da, eta epe horretan kredituak konprometituta daude, eta justifikazio data iritsi arte ez dakigu gastatzen diren.

Geratu den zenbatekoa honako taula honetan jasotzen da:

Flujo domésticos	913.106,36
Flujo industriales	3.099.445,11
Flujo RCD's	1.820.296,18
	5.832.847,65

5. Galdera.- Gobernuak nola gastatuko du diru hori, kontuan hartuta hondakindegian ezabatzearan eta erraustearan gaineko zergak izaera finalista duela?

Aurreko galderan emandako erantzunarekin bat, askotariko deialdietan gastatu gabe geratu den zenbatekoak Hondakinen Funtzaren esparruan deitzen joan diren beste deialdi batzuetan erabiltzen jarraitu dira, Hondakinen Planaren helburuak betetzeko; inbertsioetarako laguntzak dira gehienbat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-23/PES-00130. Galdera, toki-entitateek Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoarekin dauzkaten zorrei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, toki-entitateek Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoarekin dauzkaten zorrei buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Partzuergoko toki erakundeek guztizko zorrari buruz (11--23/PES-00130). Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Gerentziaren txostena

1. Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoan parte hartzen duten toki-entitateen zorra zenbatekoa da guztira?

2. Zor hori nola banatzen da toki-entitateen artean? Zein urtetakoak da zorra? Zenbatekoa da entitate bakoitzaren urteko zorra? Zer kontzepturi dagokio (partzuergo-tasa...)?

3. Zein da entitate bakoitzaren zorraren egoera (borondatezko epeko ordainketa, bide exekutibo...)?

Jarraian, lehenengo bi galderak daude erantzunda, batera.

Partzuergoko erakundeek zorrak partzuergotasarenak dira batez ere. Hurrengo orrialdean koadro bat jaso da, 2022/12/31ko datuekin; 2022ko Aurrekontuaren Espedientea Likidatzeko Kontu-hartzailetzaren txostenaren parte da, hori baita itxitako azken ekitaldia.

Partzuergoko erakunde bik edukiontzia tratatze prozesuetan berreskuratzearen kontzeptupeko zorrak dituzte 2022ko ekitaldiaren amaieran:

3990100 Hondakin geldoak berreskuratzeagatiko diru-sarrerak	2022	2023		
	2022/12/31n KOBATZEKE DAGOENA	2023/04/15ean KOBATU DENA	2023/10/18an KOBATU DENA	2023/10/18an KOBATZEKE DAGOENA
<b>PARTZUERGOKO ERAKUNDEA</b>				
ERRIBERAGOIENENKO H.H.S. MANK.	6.952,90	0	6.952,90	0,00
ERRIBERAKO HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA	42.874,80	42.874,80		0,00
<b>Gutzizko orokorra</b>	<b>49.827,70</b>	<b>42.874,80</b>	<b>6.952,90</b>	<b>0,00</b>

Nafarroako Gobernuak zenbait dirulaguntza ditu ordaintzeke 2022ko abenduaren 31n.

NAFARROAKO GOBERNUA -DIRULAGUNTZAK-	2022	2023	
	2022/12/31n KOBATZEKE DAGOENA	2023/04/15ean KOBATU DENA	2023/10/18an KOBATZEKE DAGOENA
HONDAKINEN FUNTSA. URTEKOA	120.477,68	120.477,68	0,00
PIL 2022-2025 KONPOSTATZE-INSTALAZIOA ERDIALDEA	1.416.072,97	1.416.072,97	0,00
PIL 2022-2025 KONPOSTATZE-INSTALAZIOA IPARRALDEA	1.241.498,67	1.241.498,67	0,00
<b>Gutzizko orokorra</b>	<b>2.778.049,32</b>	<b>2.778.049,32</b>	<b>0,00</b>



## PARTZUERGOKO ERAKUNDEEN PARTZUERGO-TASAREN ZORRA 2022/12/31N ITXITAKO EKITALDIETAN

PARTZUERGOKO ERAKUNDEA	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Guztizko orokorra
BAZTANGO UDALA						1.515,21	2.947,81	3.919,29	712,61	959,58	1.248,38	1.435,21	2.177,49	7.748,70	22.664,28
IRATI H.H.S. MANK. (10. EREMUA)		712,14		2.954,76	2.247,20	4.243,10	-257,38	7.935,69	4.519,56	2.502,81	3.367,61	4.920,35	12.074,84	14.053,18	59.273,86
MANC. R.S. BIDAUSI - ZARBOA SENDOEN BATZA BIDAUSI													2.205,74	8.557,58	10.763,32
ERRIBERAGOIENKO H.H.S. MANK.				9.255,52	15.816,43	17.216,04	17.998,05	19.818,71	21.789,05	23.223,60	9.805,14	69.773,14	59.899,17	70.977,26	335.572,11
MAIRAGAKO MANK.						169,09	5,61		1.267,57	155,33	3.567,60	2.940,96	4.163,88	310,26	12.580,30
MANC. DE MALERREKA / MALERREKAKO MANKOMUNITATEA			631,88	1.497,61	2.095,72	2.831,31	3.373,64	3.647,70	3.746,13	3.066,19	3.795,25	13.920,43	12.901,79	12.201,48	63.709,13
MANC. DE MENDIALDEA / MENDIALDEA MANKOMUNITATEA		877,40	2.067,95	832,00	4.234,42	2.657,61		7.488,40	4.489,18		4.183,68	10.695,79	11.234,56	12.029,01	60.790,00
JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA															
BORTZIRIETAKO H.H.S. MANK.	337,73	645,63	831,40	1.857,89	2.020,71	2.026,50	2.188,62	2.234,94	2.108,72	1.764,73	2.577,26	2.654,32	3.446,24	6.909,78	31.604,47
EZKA-ZARAITZU H.S. MANK.															0,00
MANCOMUNIDAD DESAKANA- SAKANAKO MANKOMUNITATEA	1.151,58	2.485,32	5.630,41	9.342,46	18.303,44	13.558,09	10.412,04	8.608,65	1.210,98	5.191,68	1.397,94	8.697,15	9.604,08	27.100,96	73.780,48
ZANGOZAKO ESKUALDEKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA	1.151,58	10.829,32	9.699,98	9.342,46	18.303,44	1.464,61		18.706,76	3.056,56	8.112,14	8.840,95	7.232,09		34.967,95	131.707,84
IZARBEBARRO MANKOMUNITATEA		754,49	2.183,85	595,15			851,93	529,28	1.387,66	1.546,73	2.148,51	3.637,42	1.793,49	185,65	15.614,16
MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES / ARAXES GARAIKO MANKOMUNITATEA	1.400,60	16.685,77	43.623,66	41.755,43	44.548,94	49.647,24	48.706,95	44.601,94	47.231,45	49.937,88	56.639,77	58.310,85	78.593,81	113.056,57	694.740,86
ERRIBERAKO HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA															
<b>Guztizko orokorra</b>	<b>2.889,91</b>	<b>32.990,07</b>	<b>64.669,13</b>	<b>68.090,82</b>	<b>98.990,39</b>	<b>96.885,80</b>	<b>98.695,62</b>	<b>134.466,02</b>	<b>107.934,37</b>	<b>114.373,02</b>	<b>114.066,67</b>	<b>199.163,30</b>	<b>214.440,16</b>	<b>332.360,37</b>	<b>1.680.015,65</b>

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA
<b>Gauzatzeke</b>	2.889,91	32.990,07	64.669,13	68.090,82	98.990,39	96.885,80	98.695,62	134.466,02	107.934,37	114.373,02	114.066,67	199.163,30	214.440,16	332.360,37	<b>1.680.015,65</b>
<b>Igorrita</b>	1.672.240,57	4.376.945,73	6.087.404,62	7.398.205,22	7.725.603,10	7.752.864,96	7.524.469,94	8.117.088,61	7.849.436,91	7.507.851,32	8.332.798,05	9.362.637,19	10.597.534,50	10.682.667,38	<b>104.987.848,10</b>
<b>%</b>	<b>%0,17</b>	<b>%0,75</b>	<b>%1,06</b>	<b>%0,92</b>	<b>%1,28%</b>	<b>%1,25</b>	<b>%1,31</b>	<b>%1,66</b>	<b>%1,38</b>	<b>%1,52</b>	<b>%1,37%</b>	<b>%2,13</b>	<b>%2,02%</b>	<b>%3,11</b>	<b>1,60%</b>

**PARTZUERGOKO ERAKUNDEEN 2022KO EKITALDIKO ZORRA 2022/12/31N**

Kontuan hartu behar da partzuegoko erakundeek tasa igortzen dutela bakoitzak bere ordenantza fiskaletan ezarrita duen maiztasunaren arabera, eta, oro har, urtearen amaiera bat etortzen da azken igorpenarekin; beraz, zenbateko hori kobratzeke geratzen da ekitaldiaren amaietan. Alabaina, azken igorpen horretan bildutako zenbatekoa hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan ordaintzen da gehienbat, eta ekitaldi horretan zehar. Horregatik ematen ditugu kobrantzen datuak 2023ko apirilaren 15era arte, ikusi ahal izateko partzueργο-tasagatiko zorra nola txikitzen den.

PARTZUERGOKO ERAKUNDEA	2022		% KOB RATZEKE	2023		
	2022AN IGORRITA	2022/12/31n KOB RATZEKE DAGOENA		2023/04/15ean KOB RATU DENA	2023/04/15ean KOB RATZEKE DAGOENA	% KOB RATZEKE
BAZTANGO UDALA	341.890,64	11.710,31	% 3	2.897,38	8.812,93	% 3
IRATI H.H.S. MANK. (10. EREMUA)	239.055,83	239.055,83	% 100	51472,92	187.582,91	% 78
MANC. R.S. BIDAUSI - ZABOR SENDOEN BATZA BIDAUSI	133.696,06	8.571,99	% 6	0	8.571,99	% 6
ERRIBERAGOIENEKO H.H.S. MANK.	1.246.438,14	689.968,24	% 55	573236,52	116.731,72	% 9
MAIRAGAKO MANK.	1.051.641,48	310.808,86	% 30	250.250,11	60.558,75	% 6
MANC. DE MALERREKA / MALERREKAKO MANKOMUNITATEA	217.055,23	116.745,93	% 54	0	116.745,93	% 54
MANC. DE MENDIALDEA / MENDIALDEA MANKOMUNITATEA	249.963,76	92.188,73	% 37	78.911,81	13.276,92	% 5
JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA	2.324.854,65	807.652,90	% 35	766848,05	40.804,85	% 2
BORTZIRIETAKO H.H.S. MANK.	346.092,49	177.151,59	% 51	168.041,51	9.110,08	% 3
EZKA-ZARAITZU H.H.S. MANK.	224.472,67	121.526,83	% 54	51.472,92	70.053,91	% 31
MANCOMUNIDAD DE SAKANA- SAKANAKO MANKOMUNITATEA	791.473,10	361.753,91	% 46	133.474,42	228.279,49	% 29
ZANGOZAKO ESQUALDEKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA	435.026,29	433.618,86	% 100	205474,19	228.144,67	% 52
IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEA	454.152,01	122.903,21	% 27	112.396,98	10.506,23	% 2
MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES / ARAXES GARAIKO MANKOMUNITATEA	36.399,71	18.196,48	% 50	18196,48	0,00	% 0
ERRIBERAKO HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA	3.481.580,31	1.928.650,11	% 55	1577690,00	350.960,11	%10
<b>Guztizko orokorra</b>	<b>11.573.792,37</b>	<b>5.440.503,78</b>	<b>% 47</b>	<b>3.990.363,29</b>	<b>1.450.140,49</b>	<b>% 13</b>

Hirugarren galderaren harira:

3. Zein da entitate bakoitzaren zorraren egoera (borondatezko epeko ordainketa, bide exekutiboa...)?

Partzuergoko erakundeek tratamenduaren zerbitzua igortzen dute, Nafarroako Hondakinen Partzuergoaren eskumenekoa, bilketa zerbitzua igortzen dutenean, mankomunitateen eta Baztango Udalaren eskumenekoa, azken hori.

Baterako ordainagiria denez, partzuergoko erakundeek bide exekutiboan erreklamatzeko bide beten ordainagiria, nola bilketarako hala tratamendurako. Ordainagiriaren zenbatekoa erreklamatzeko da. Geroago, partzuergoko erakundeek bide

horretatik berreskuratutako zenbatekoetatik tratamenduari dagokion zatia ordaintzen diote partzuergoari.

Partzuergoko erakundeek, oro har, epea agortzen dute zorrak kobratzeko kudeaketa egin baino lehen, bide exekutiboa beste gastu bat ere bade-lako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

## 11-23/PES-00131. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzak zahar-etxeei erizaintzako zerbitzua emateari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Osasun Laguntzak zahar-etxeei erizaintzako zerbitzua emateari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak 11-23/PES-00131 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, zenbait gairi buruz: 92/2020 Foru Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorra (Erizaintza ratioak egoitza zentro txikietan). Dekretu horrek, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua arautzen du adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen, adingabeen arretan eta gizarte-inklusioaren arloetan, eta bestetik, baimeen, aurretiazko komunikazioen eta homologazioen araubidea. Hirugarren xedapen iragankorrek honako hau jasotzen du: «Egoitza zentroaren

ahalmena 50 tokitik beherakoa bada eta, eskaintzen diren egoiliar-toki publikoak eta zerbitzuari lotutako prestazioak batera hartuta, okupazioa % 50era iristen ez bada, erizaintzako langileen zerbitzua Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarrizko osasun laguntzatik jasotzen ahal-ko da, aurretik harekin adostuta eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak baimentzen badu».

Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

– Hirugarren xedapen iragankorrean adierazitako ezaugarriak dituzten zenbat eta zein egoitza zentrok eskatu dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erizaintza-zerbitzua eman dakien?

Galdera horri dagokionez, Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzaordean laguntza formalki eskatu duen zentro bakarra Lesakako Andra Mari da; nahiz eta erizaina kontratatuta izan (zentroko zuzendaritza), aitortu dute osasun arreta oinarrizko arretaren laguntzarekin antolatu behar dela.

Zehaztu behar da zentro mota horretan osasun laguntza oinarrizkoak errefortzu gisa aritzen direla hadanik, eta erabiltzaileei arreta emateko laguntzen dute, nola jardun arruntean hala Larrialdi Zerbitzuetan (LELZ, OKLZ, LZA), Oinarrizko Arretaren barruan baitaude ere bai.

– Hirugarren xedapen iragankorrean adierazitako ezaugarriak dituzten zenbat eta zein egoitza zentrok eskatu dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Oinarrizko Osasun Laguntzaren erizaintza-zerbitzua eman dakien Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentziaren baimenarekin?

Gaur egun ez dago protokolorik edota hitzarmenik Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziarekin egoerok balioztatatu eta ezartzeko.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Osasun Departamentuko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## **11-23/PES-00132. Galdera, Parlamentuaren atarian irailaren 27an egin zen elkarretaratze isilean Foruzaingoaren Esku-hartzeko Unitate Bereziak izandako jokabideari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Parlamentuaren atarian irailaren 27an egin zen elkarretaratze isilean Foruzaingoaren Esku-hartzeko Unitate Bereziak izandako jokabideari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

VOX Navarra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari MARÍA Teresa Nosti Izquierdo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00132): Iragan irailaren 27an, elkarretaratze isila egin zen 12:00etan Nafarroako Parlamentuaren egoitzan, Madrilen emakume bat erail izana gaitzesteko. VOX talde parlamentarioak honako hau zioen bere kartel propioarekin parte hartu zuen: "Indarkeriak ez du generorik, indarkeria mota ororen aurka eta biktima guztien gومتان."

Gertakari horrek eragin zuen Foruzaingoko Esku Hartzeko Unitateko buruak, Parlamentuko Foruzaingoko Babes Zerbitzuko buruarekin bate-

ra, foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunari esan ziezaion gainontzeko parlamentariengandik 5 bat metrora jar zedin; horiek "Stop erasotzaileei" goiburuko pankarta bat zeramaten. Nork eman zion agindu hori Foruzaingoko Esku Hartzeko Unitateari? Hona Nafarroako Gobernuaren Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak ematen dion informazioa:

Herritarren Segurtasunaren Arloko Esku hartzeko Dibisioaren buruak honako hau jakinarazi zuen 2023ko urriaren 11n: "Txostena eginduenak ezin du Vox Navarra talde parlamentarioaren eskaera aurkeztu,"Foru Poliziaren Esku Hartze Unitatearen indar jardulari emandako aginduaren kopia", hain zuzen. Izan ere, ez dago halako agindurik, Esku Hartzeko Dibisioko burua eta txostenaren egilea da gauzatutako esku-hartze poliziala egiten duena eta haren arduraduna, legezko araudian eta bere kargura dituen esku-men eta atribuzioetan babestuta."

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria. Amparo López Antelo

## 11-23/PES-00133. Galdera, prestakuntza-praktiken edo praktika akademiko-koen kotizazioak duen inpaktuari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, prestakuntza-praktiken edo praktika akademiko-koen kotizazioak duen inpaktuari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Zurekin-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak idatzizko galdera egin du (11-23/PES-00133), Legebiltzarraren erregelamenduak ezartzen duenaren babesean, eta hona hemen Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

Neurri hori indarrean sartzen da 2024ko urtarrilaren 1ean, eta Lanbide Heziketako, Digitalizazio eta Hezkuntza Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusia, gai horretan inplikaturako gainerako Departamentuekin batera, horretarako sortu behar den protokoloa zehaztasunez aztertzen eta definitzen ari da, martxoaren 6ko 2/2023 Lege Dekretuak exijitzen duen beharrezko gailua abian jartzeko. Neurri horren finantzaketa ere jakin da, eta berorren irismena hezkuntzako erakundeek beren gain hartzen eta banatzen dute, honela: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak bere gain hartzen du neurria aurrera eramateko behar

den finantzaketaren % 95, eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak gainerako % 5. Hala ere, 2024an, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak neurri horren % 100 finantzatuko du.

Orain arte, hezkuntza zentroetan aldiro aldiko zalantzak egon dira prozedura horren harira. Zalantza horiek argitu egin dira eta egon den informazioa zentroetako zuzendaritzari bidali zaie, eta eskatu da irakasleei ere helaraz diezaietela, hezkuntza komunitate osoak legediako berrikuntza horren eta berorren berehalako aplikazioaren berri izan dezan. Oraindik ezin da baloratu neurriak duen inpaktua, 2024/01/01etik aurrera izan den baita indarrean.

Aipaturako araudiak ezartzen du prestakuntzako eta ikasketako praktikak egiten dituzten ikasle guztiak sartu behar direna Gizarte Segurantzako sisteman. Azpimarratu behar da lanbide heziketako prestakuntza praktikak curriculumekoak direla, eta, horrenbestez, nahitaezkoak. Hezkuntza Departamentuaren betebeharra da ikaskuntza horien behar bezalako jarduna eta kalitatea zaintzea, eta, horretarako, elkarrizketak eta proiektuak jarri dira abian eragile ekonomiko eta sozialekin eta Lanbide Heziketako Nafarroako Kontseiluaren ordezkariekin, bermatzeko Nafarroan lanbide heziketan diharduten ikasleei kalitatezko prestakuntza praktikak ematen zaizkiela.

Iruñean, 2023ko azaroaren 7an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 11-23/PES-00134. Galdera, arnas birus sinzitalaren txertoa sei hilabete baino gutxiagokoei ez jartzeko arrazoiei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, arnas birus sinzitalaren txertoa sei hilabete baino gutxiagokoei ez jartzeko arrazoiei buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Union del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11/23/PES-00134), jakiteko ea zergatik erabaki den soilik jaioberriei (eta arrisku handiko haurrei) jartzea arnas birus sinzitalaren (ABS) txertoa, eta ez sei hilabete baino gutxiagoko neska-mutikoei (eta arrisku handiko haurrei). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasun Kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Osasun Ministerioaren markoa

2023-2024 denboraldian arnas birus sinzitalaren aurka nirsevimab erabiltzeko gomendioen dokumentua baloratu ondoren (2023ko Txertoen Programarako eta Erregistrarako Ponentziak egin zuen dokumentua), Osasun Publikoko Batzordeak honako hau adostu zuen:

Osasun Publikoko Batzordearen akordioa nirsevimab erabiltzeari buruz. 2023 maiatza-ekaina:

2023ko maiatzaren 9an izandako Osasun Publikoko Batzordearen bileran adostu zen nirsevimab erabiliko zela arnas birus sinzitala izateko arrisku handiko haurren kasuan.

Bermatu ahal izateko sasoia hastean herritarrek arnas birus sinzitalaren aurka immunizatzeo estrategia bat eskura dutela, eta immunizazio egutegian jasota ez dagoenez, autonomia erkidegoek beren inguruabar espezifikoak jarraituz erabakiko dute nola eta zer eperen barruan inplementatuko duten Txertoei buruzko ponentziak egindako gomendioen proposamena. Halaber, eta xede horrekin berarekin, une horretara arte immunizazioaren esparruan izan daitezkeen berriak ere artatu behar izanen dira, zeinak osorik

zein zati batean aldatu ahal izanen dituzten egungo gomendioak, aldiari aldiko organismo arautzaileak baimentzeko beharrezko prozedura onetsi ondoren.

Nafarroa

Ildo horretatik, Nafarroako Txertoen Aholku Batzorde Teknikoaren bilera deitu zen, eta irailaren 7an egin zen. Bertan zenbait aukera baloratu ziren eta aho batez honako akordio hau adostu zen:

2023/2024 denboraldian Arnas Birus Sinzitalaren aurka nirsevimab antigorputz monoklonarekin immunizatzea honako hauek:

- Arnas Birus Sinzitalaren ondorioz gaixotasun larriren bat izateko arriskua duten haurrak, eta orain arte eman den palvizumab antigorputz monoklonala ordeztzea..

- Immunizazio unibertsala 2023ko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean jaiotzen diren adingabe guztientzat. 2024ko urtarriletik martxora bitartean jaiotako adingabeek immunizazioarekin jarraitzeko aukera izango dute, egoera epidemiologikoaren, Arnas Birus Sinzitalak gure erkidegoan duen zirkulazioaren eta aurrekontu nahikoa eta iraunkorra izatearen arabera. Immunizazio hori ospitale eremuan eskainiko da, jaio eta 24-48 ordura.

Akordio hori Osasun Departamentuari helarazi zitzaion, eta 2023ko urriaren 1etik aurrera 2023-2024 denboraldirako hartutako jarraibideak dira.

Txertoen Aholku Batzorde Teknikoaren erabakia hartzeko motibazioa

Epidemiologiaren eta Osasun Prebentzioaren Zerbitzuak azaldu zuenez, populazioarentzako programa bat ezartzeak, fitxa teknikoan adierazitako indikazioarekin bat etorritik, eragina izanen luke asistentzia sanitarioaren lan karga murriztean, ospitaleko egonaldian eta ABSak eragindako infekzioaren ondoriozko kostu zuzenetan. Hala ere, murrizketa hori Osasun Publikoko inbertsio baten kontura gauzatuko litzateke, 2022-23 denboraldian aztertutako adin taldean izandako zuzeneko kostu guztien ia bikoitza (518.572,50 vs. 1.003.768,48 euro). Bestela esanda, farmakoa erosteak kohorte osoari eraginen liokeen zuzeneko kostua kohorte horretan ABSaren infekzioak

eragindako osasun-asistentzian inbertitzen den diruaren ia bikoitza izanen litzateke (1,94 aldiz).

Osasun Sistema Nazionaleko Farmaziako eta Osasun Prestazioetako Zuzendariordetzak azaldu zuen zer ondorio izanen luke arrisku handiko haurren profilaxitik 6 hilabetetik beherakoen profilaxi unibertsalera igarotzea.

Gaixotasun Transmigitarren eta Txertaketen Atalak immunizazio egoera alternatiboak proposatu zituen, gaixotasunaren epidemiologiaren eta birusaren zirkulazioaren arabera. Ildo horretatik, azaldu zen ABSaren ondoriozko infekzioa izateko arriskurik handiena azaroan jaiotako hurrek dutela, eta neurri txikiagoan urrian eta abenduan jaioen direnek. Gainera, azaltzen da immunizazio unibertsal prospektiborako estrategia bat hartzeak, kostuak aurrezteaz gain, onura maximizatzen duela eta immunizazio programa errazagoa egiten duela, programa hori ospitaleetan gauza baitaiteke, jaioberriari alta eman aurretik. 2023ko urritik abendura bitartean jaiotakoen profilaxia arrisku handiko faktorerik gabe jaiotako 1.153 bat haurri zuzenduta egonen litzateke.

Aurkezpenaren ondoren, eztabaida bat hasi zen. Eztabaida horretan, bai HUNko Pediatria Atalak bai ANPE elkarte zientifikoak agerian utzi zuten nirsevimab behar zela birusaren zirkulazio denboraldian ABSak eragindako asistentziaren gainkarga minimizatzeke, bai ospitaleratzeetan, bai Oinarrizko Osasun Laguntzan.

Era berean, Nafarroako Farmazia Antolamendu eta Ikuskapenaren Atalak adierazi zuen Espainia osoko Farmakozaintza Zentroek farmakozaintza intentsiboko plan bat jarri dutela abian

sendagai horretarako, segurtasunari buruzko daturik ez dagoelako. Plan hori AEMPSe koordinatzen du, Farmakozaintzako zentro autonomikoekin batera, eta giza erabilerarako sendagaien segurtasun batzordean eztabaidatuko da.

Halaber, Nafarroan gurasoentzako informazioa biltzen duen formatu lagungarriko dokumentu bat egitearen garrantzia eztabaidatu zen.

Ildo horretan, nabarmendu zen oso garrantzitsua dela detektatzen diren kontrako erreakzio guztien susmoak jakinaraztea eta dokumentu horretan nola eta non jakinarazi behar den azaltea.

Behin neurriaren alde onak eta txarrak ikusi ondoren, aho batez erabaki zen, ABSaren ondoriozko gaixotasun larria izateko arrisku handia duten haurrentzako immunizazioan palivizumab farmakoa ordezteaz gain, 2023ko urriaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako haur guztiei immunizazio unibertsala jartzea, eta 2024ko urtarriletik martxora bitartean jaiotako hurrek immunizazioarekin jarraitzeko aukera zabalik uztea, egoera epidemiologikoaren, gure erkidegoan Arnas Birus Sinzitalaren zirkulazioaren eta aurrekontu nahikoa eta iraunkorra izatearen arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 24an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

